

[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

562. zkia.

XIII. urtea

2006ko martxoaren 3a



**Amaitu dira mozorroaren
atzean ezkutatzeko egunak**

Chevrolet harrigarriagoa da.

Ez baduzu sinesten 0-km.koa dela, begiratu prezioa.



Lacetti 1.4 SE. 0 Km - 11.700 €

Nubira 1.6 SE. 0 Km - 11.700 €

Orain 2005ean matrikulatutako Lacetti edo Nubira bat (0 km) prezio onenean eduki dezakezu. Berri baten zerbitzu eta ekipamenduarekin. Estreinatzen duzula esan dezakezu, guk gordeko dizugu sekretuak.

Giauto 902 345 225

Otaola Etorbidea, 27 - EIBAR - Tel.: 943 70 08 41
Karobi Industrialdea z/g - OLABERRIA - Tel. 943 88 51 50
clientes@giauto.es

www.chevrolet.es

Chevrolet gehiago da.



Kontsumo nabia (l/100), CO₂ emisioa (g/km). Nubira: 7.1-8.8/109-210. Lacetti: 7.1-8.8/171-210.



90 zm-ko oherako nordikoak **29€ BAKARRIK**

Zure nordikoa ez da izango amets bat!!

Azken egunak



Neurri guztiak ditugu!

Kalitate goreneko edredoi nordikoa eskeintzen dizugu!

Pisua: 250 gr. edo 100 gr. • Ehuna: %100 kotoia

%20ko beharapena ehunetan!



Uki leuna



Airearen zirkulazioa



Mikroklima bero erregulatua



40°-tan garbigarria



Garbiketa lehorrean



Hipoalergenikoa

LAGUNAK

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com



AINHOA MENDIBIL



AMAIA GORROTXATEGI

ZOZOAK BELEARI...

Epa Amaia!

Orain aste bete zera entzun nuen telebistako kate berri batean: "Quitate la mascara, ponte el disfraz".

Gustatu egin zitzaidan, polita zen. Argia. Eta unerako, egoerarako aproposa, zergatik ez.

Baina kate horretako iragarkiekin aspertu eta beste kate batetara egin nuen salto.

Hemen eguneroko berriekin ziharduten. Jende mordoa ageri zen telebistan. Kanean, bata bestearen atzetik; manifa bat hain zuzen ere.

Eta halako batean neska baten ahotsa, gaztelaniaz. Gertaeraren berri ematen ziharduen eta kasu gehiegirik egin ez banio ere, barregarria egin zitzaidan kontu bat.

Datuak ematen hasi eta... antolatzaileen esanetan hainbeste (pertsona) gerturatu ziren; gobernuak zioenez berriz hainbeste (pertsonak hauek ere). Eta hainbeste, biak desberdinak noski.

Zer gertatzen zen Amaia?

Bietako batek maskara kentzea ahaztu?

Maskara jantzita zuela (zutela) ahaztu?

Zer gertatzen da Amaia?

Pa, Aino.

PD Ikusi zintudan kamabaletan. El Escrialeko gurdian disfrazta neri baietz hobeto geratu? kar, kar, kar...

«Bietako batek
maskara
kentzea
ahaztu?»

AINHOA

«Jende askok
janzten du
maskara nagiak
atera aurretik»

AMAIA

Aupa Ainhoatxo!!

Oso ona zure eslogan hori!! pena da jendeak begiak estaltzen dizkion maskara hori kendu ezin izatea.

Nik ere zuk ikusitako manifestazio bera ikusi nuen.

Bietako batek ez, biek ahaztu zuten maskara kentzea eta oso tristea izan arren ez dira maskara kentzea ahazten duten bakarrak.

Mundu honetan jende askok janzten du maskara nagiak atera baino lehen, munduko argiak, egiak, errealitateak begietan min egiten die itxuraz. Ez dira konturatzen begiak itxeak, mundu propio bat imajinatzeak ez duela benetako mundua aldatzen. Edo bai?

Beharbada bai, beharbada batzuk konturatzen dira gezurra dela beraien aurpegia estaltzen duena, baina gezur hau egia bihurtu nahi dute eta lortzen dute. Argi dago.

Kanean zehar pankarta atzean ibili zen giza mareak konfirmatzen du. Egia esan zure esloganaren erdia bete zuten manifestari haiek!!

Ez, ez zuten maskara kendu, baina txorimalo eta ardi ugari zeudela iruditu zitzaidan. Mozorroa ote??

Bueno Ainho, oraindik ere zapatuko mozorroa jantzita baduzu ken ezazu, eta zuk ere jantzi maskara, zorionsuago biziko zara eta zure mundu propioan!!



NIK MANIPULATU DITUDAN ESTADISTIKEZ BAKARRIK NAIZ FIO



Winston Churchill

Kiroldegari erantzunez

Urte asko daramazkit Kiroldegiko erabiltzaile izaten, eta BARREN astekariak eskaintzen didan aukera hau aprobetxatu nahi dut Kirol Patronatuko Zuzendaria den Ramon Mugicaren eskutitzaren gainean nire iritzia plazaratzeko, eta ahal dudan neurrian zerbitzu hau hobetzeko. Eskutitzaren bigarren puntuak harritu ninduen: "Jakin badakigu Olaizaga kiroldegia txiki geratu dela... baina harro egoteko arazoia da... zorionez, gaur egun 4000 abonatu gara". Mugica jauna, ados nago erabat, Kiroldegia (batipat igerilekua) txiki geratu da eta zure taldea gestioan sartu zenetik gauzak hobetu dira, Olaizaga sartuta zegoen ostrazismotik atera zenuten, lana ondo eginda orokorrean, batipat zuen gestioaren lehen urteetan. Baina ezin dugu egungo egoera iraganean egindakoaz justifikatu. Ezin duguna da, Kiroldegia txiki geratu dela-eta, eskuak poltsikoan sartu. Herriarentzako den zerbitzu hau txiki geratu bada formulak bilatu beharko ditugu denori enbarazu egiten digun egoerari irtenbidea aurkitzeko: igerilekua handitzeko aurrekontu bat egin, edota berri bat eraikitzeko, edo dirurik ez badago ordutegiak luzatuz, edo Kiroldegirako dirua eskaintzen duen alderdi politikoari botu eman datuzen udal hauteskundeetan... Ezin duguna da bakoitza bere posturan enrokatu eta planto egin, denok gure begiekin ikusten dugun arazoak bere horretan, jarraitzen duen bitartean. Azkenean, herriarentzako zerbitzuak eraikitzeko prozesuak dinamikoak behar du izan eta etorkizuna aurreiku-

si behar da. Iraganetik ikasi beharra dago, baina etorkizuna eraikitzeko asmoarekin. Mila esker, eta ea kritika konstruktibo honek zerbaitek laguntzen duen.

IBON GABILONDO ALTUNA

9 hildako azken 1.000 egunetan:

Dagoeneko 12 dira espetxe barruan hil diren Euskal Preso Politikoak. Hauetako 3, azken 20 hilabetetan hil dira: Igor Angulo Santurtziarra aste honetan bertan; Kotto zein Oihane Errazkin lehenago. Ondorioz, Euskal Herriko gatazka delakoan azken 1.000 egunetan hildakorik egon ez dela esanesaterik ez dago: azken 600 egunetan, espetxean bakarrik, 3 pertsona hildako suertatu dira!!!

Espetxean hildakoei, azken 1000 egunetan disperstioaren ondorioz errepidean hildako senide eta lagunak gaineratu behar ditugu: Argi Iturralde, Iñaki Balerdi, Karmele Solaguren, Sara Fernandez eta Leo Esteban. Horrez gain, espetxetik irten eta berehala, azken 1.000 egunetan kartzelako gaisotasun baten ondorioz hil zen Kepa Miner gaineratu behar dugu.

Cuencako espetxeko preso esukaldun bakarra zen Igor Angulo. Lur jota eta harrituta laga ditu senide eta lagunak bere heriotzak. Alai eta etorkizunera begira topatu zuten Igor bisita egitera joan ziren azken lagunak, eta ez dute uste bere buruaz beste egingo zuenik. Besteak beste, zazpi urteko semea laga du Igor Angulok.

Heriotza gehiago nahi ez dugulako, hemendik aurrera Etxeratek deitutako mo-

bilazioetan parte hartzeko eskatzen dizuegu elgoibartar guztiak.

ELGOIBARKO ETXERAT

Martxoak 8 King Kong-ean 20.00etan... sexismoari kaña!

Martxoaren 8an, emakumearen egun internazionala ospatuko dugu, duela urte batzuk 129 emakume lan eskubideak defendatzeko greba bat egiteagatik oihal fabrika batean erreak izan zirela gogoratzu. 98 urte pasa eta aurrerapauso handiak egin badira ere, oraindik emakumeak diskriminazio sexista jasaten du, munduko herrialde askotan eta gurean.

Mendebaldeko gizarteetan, itxuraz berdintasun legal bat lortu badugu ere, errealitatea bestelakoa da eta egunero pairatzen ditugu diskriminazio sexistak. Lan produktiboan emakumea sartu bada ere, erreproduktiboa oraindik (etxeko lan eta zaintza rolak) soilik emakumearena da. Diskriminazioa ematen diren esparruak ugariak dira; lan munduan, komunikabideetan, eskolan, sexualitate eremuan, folklorea, hizkuntzan, tabernetan... eta sarritan, eredu hauek hain bameratuta izanik, egoera asko normalizatu egiten ditugu.

Beraz, elgoibartar, neska edo mutil, martxoaren 8an, iluntzeko 20:00etan, Gazte Asanbladak King-Kong-era agertzera animatzen zaitu, emakumeak jasaten duen diskriminazio sexista hau salatzerat!!

ELGOIBARKO GAZTE ASANBLADA



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorroategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larnaaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odiña, Maialen Olazabal, Iban Urizar, Kokea KE, Urruzuna, Unai Villena, Alaitz Vives **ESPERA ZAHARRA** Gatxon Garatieren libururik **INPRIMATEGIA** Geru **TIRADA** 4.450 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Euzko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



KEXAK

• Altolako iturria puskatuta dago eta ezin da bertatik urik edan:

“Denbora mordoa darama Altolako iturriak puskatuta. Ura harritik ateratzen da eta honela ezin da edan. Udaletxean kexatu naiz, eta ez naiz bakarra izan, baina ez digute kasurik egiten. Herrian gauza mordoa omen dago konpontzeko eta itxaron egin beharko dugula esan ziguten. Ur berezia da eta dena alperrik gaitzen ari da. Pena da. Altolako bizilagunontzat iturri kuttuna da eta konpontzea gustatuko litzaiguke”.

• San Lazaro Egoitzaren aurreko espaloia autoz beteta egoten da:

“Badakigu herri honetan autoak aparkatzeko arazo handia dagoela, baina jendeak ez du ezer errespetatzen. Kafea hartzera autoan joaten da jende asko eta gainera taberna aurrean aparkatzea nahi izaten dute. Eta klaro, denentzat ez denez tokirik egoten espaloi gainean uzten dute autoa edozein modutan. San Lazaro Egoitzan jende nagusia dago, asko gurpildun aulkian atera behar izaten dira kalera eta espaloi gaineko autoek traba handia egiten dute. Errespetatu ditzagun herriko espaloiak, mesedez”.



• **Autobus geltokietako markesinak apurtuta daude:** Negu hotza izan dugu benetan, eta autobus geltokian egon behar izan dugunok ondo nabaritu dugu. Markesinak apurtuta daude eta denbora mordoa daramate honela. Badakigu puskatu egiten direla edo puskatu egiten dituztela, baina konpondu egin behar dira. Jende mordoa erabiltzen du autobusa eta neguan izoztuta geratzen gara autobus geltokian. Hotza, euria eta elurra jasan ditugu. Kristalezkoak apurtu egiten badira, plastikozkoak jarri, baina konpondu, mesedez”.



TXALOK

• Elgoibar Ikastolak, **Mari Karmen Arizaga** txalotu nahi du, inauteri kalejiran erabili diren jantzi eta apaingarriak egiten agertu duen borondate bikainarengatik.

Atal honetarako kexak, txalokak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

komikia

Hil da gero... zenizero



Kokoe 049

Gau-eskolatik euskaltegietara 50 urtean

Gau-eskolak klandestinitatean

Aurreko astean esan genizuen 66an ekin ziola El-goibarko Izarrak euskalduntze-alfabetatzeari. Eskolak emateko, hiztegi txiki bat eta Jon Oñatibiak gaztelaniaz idatzitako *Metodo Radiofonico* liburuxka erabiltzen zituzten. Liburuxka hau Bilboko Herri Irratiak erabiltzen zuen euskara irakasteko zuen programa batean, eta 2.000 liburu inguru saldu ziren aitaren batean. Bi hilabetera, Oñatibiak *Metodo del euskera radiofonico-Euskera irrati bidez* liburua plazaratu zuen, eta Donostiako Herri Irratia ere hasi zen emititzen.

1967an Felix Etxeberria, Maite Ajuria, Marisabel Mujika eta Marisabel Arakistain Bergarara joan ziren Euskaltzaindiaren ikastaro batera; euskaraz irakurtzen eta idazten irakasteko gai zirela azaltzen zuen agiria lortzeko zen ikastaroa. Astea eskolak ematen pasa ondoren, zapatuan ikastera joaten ziren laurak. Gainera, ez zuten txikitarik ere kobratzen eskolak emateagatik. Felixek esan digunez "*euskerian egoeriagatik kezkatuta geundelako ematen genitxun euskerako klasiak, erderiak ez itxotzeko*".

Gau-eskolak klandestinitatean:

Garai txarrak ziren euskarako eskolak emateko. Gau-eskolak klandestinoak ziren. Baimenik eskatu gabe ematen ziren 75ean Franco hil zen arte. 70ean, adibidez, Felix atxilotu eta egurtu egin zuten, besteak beste, euskarako eskolak ematen zituelako. Burgoseko prozesua ere pare-parean tokatu zen, eta oso giro txarra zegoen Euskal Herri osoan. Luis Bilbaoren bitxikeria bat kontatuko dizuegu adibide modura. Luis gau-eskolako irakaslea zen, eta beldur pixka bat pasatzen zuela aitortu digu. Halere, gelan teniente baten alaba omen zebilen euskara ikasten, eta honek lasaitasuna ematen zien. Behin, klasetik irteterakoan Guardia Zibilekin egin zuten topo. Laster arrimatu omen ziren denak tenientearen alabarengana!



EULOGIO MANCEBO

UDAL EUSKALTEGIKO IKASLEA

Soldaduzka egin ostean, zerotik abiatuta hasi zen uskara ikasten Eulogio Mancebo. Euskaltegiez gain, bere bereak dituen metodoak ere erabili zituen ikaste prozesuan eta asko saiatzearen ondorioz EGA (Euskara Gaitasun Agiria) ere atera zuen.

• Izan al zenuen laguntzarik euskaltegitik kanpo?

Bai, 5 urtez neskalagan euskalduna izateak edo Felipe Castrillejo moduko lagunek asko lagundu zidaten. Gero, oinarri oso makala izan arren, mordo bat irakurtzen hasi nintzen; liburuz-liburu euskararen etxeko adreiluak jarri arte. Gainera, esaldirik gustukoenak (esaera zahar, metafora...) liburuxka batean apuntatzen nituen, nire estilo liburu propioa osatuz. Milatik gora edukitzera iritsi nintzen eta buruz nekizkien denak.

• Zer da euskara ikasteko garrantzitsuenak?

Euskaraz pentsatzea. Nola pentsatzen den euskaraz? Neska batekin zita bat eduki eta biharamonko elkarriketaren balizko erantzun guztiak buruan jira bueltaka

darabiltzazunean, esaterako. Horrez gain, lotsagarri geratzeko arriskua egonagatik lotsagabe erabili behar da euskara kalean. Jausgailurik gabe salto egitea modukoa izan arren, zezen plazara atera behar da.

• Zer izan da zailena?

Ingalaterrara bazoaz derrigorrez egin behar duzu ingelesez. Hemen beti dago bigarren aukera bat, eta baztertua beti da euskara, gaizki egingo dugulakoan. 'Ondo-ondo dakidanean hasiko naiz' pentsatzen duzu, baina perfekziora ez zala sekula iritsiko.

• Zer eman dizu euskarak?

Errealitate berdina beste pertzepzio, detaileekin ikusten da. Azaltzen zaila da, baina bi berba euskaraz trukatu eta berehala konplizitate modukoa sortzen da.

Bukatu s. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

karkizano
San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

[AKORDATZEN NAIZ]



JOSE MARI BETELU


1932an jaioa

«Fubola eta txikiteua»

Gaur egunian etxata fubola gustatzen, eta ez dot segitzen. Izan naiz futbolera, baiña oin ez dot ikusten. Nere nahixa beti izan da Euskal Herriko lau ekipuak lehenengo mailan egotia. Bestela, ez dot faboritorik euki. Derbi baten Realaren alde, baiña Bilbok irabazten badau ere poztu egitten naiz: euskal taldiak irabaztia gustatzen jata.

Txikiteua sagraua zan gure denporan, fenomeno bat izan zan. Batzuk taillerretik urten eta segidan juten ziran txikiteora, baiña neri etxatan

gustatzen, estomagua hutsik eukitta edaten hastia etxatan gustatzen. Nik nahixago izaten naban lanetik etxera jun, goizo afaldu, eta gero txikiteora urtetzia.



Lagun danak urtetzen genduan. 8 edo 10 txikito hartzen genduzen, eta gero kafia eta kopia. Hamar terdixak alde- ra juten giñan etxera. Hori eguneroko kontua zan, baiña gizonetzuetan bakarrik, emakumiak txikiteuan ibiltzia gaizki ikusitta zagan. Emakumiak etxian egoten ziran.

[GURE BERBAK]

Edo, eta, ala alargunak

Bi gauza lotzeko erabiltzen dira normalian juntagailu hauek: *ama eta lagunak, Pellok edo Mirenek, ardaa ala ura*. Gaurko adibidietan, baiña, juntatzen diran bi osagaixetatik bigarrena ez da agertzen. Ezagunak diralako edo garrantzirik ez daukalako, kendu egitten ditugu, eta hola geratzen da egittutiori: *ama-eta jua dira afaltzera, Pello- edo egingo zaban*. Idazterakuan, hobeto ulertzeko marratxo bat jarri leike aurretik (Euskaltzaindiak onartutako araua da). Hona gure herriarren adibide batzuk:

- *Umiak badaukez bost edo, baiña hasitta.*
- *Ze pagatzen zigun? Pesetia edo zuan eguneko.*
- *Hemen, ortuan da batutakuak jaten ditugu.*
- *Gero, txahalak eta, kenduta daukuz.*
- *Hamar anai-arreba ziran gure ama ta.*
- *Ez dakik ni nungua nitzan, ala?*
- *Ori baiña ez da txarra, ala?*
- *Etxia ta kalian daukaz, baiña ze egingo dau ba?*

Jesus Mari Makazaga



I. URTEURRENA

2005eko martxoaren 2an, 75 urte zituela hil zen *Jose Maria Agirregomez Kortaren* oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, martxoak 4, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



I. URTEURRENA

2005eko martxoaren 3an, 91 urte zituela hil zen *Isabel Orbea Arriabalagaren* oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, martxoak 4, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.




2006ko INAUTERIAK

MOZORROAK ARMAIRURA!

Mozorroak kendu eta betiko aurpegiarekin aterako gara kalera aurrerantzean. Denetariko mozorroak ikusi ditugu aurtengoan ere, eta batzuk, sariak ere irabazi dituzte. Gazteen Gurutze Gorriak antolatua, mozorro lehiaketa izan zen larunbat gauean. "La gitana Juanita" bakarka, eta "Sandy y Los Travolta" taldeka izan ziren irabazleak. BARRENeK papparazziak argazki kamera eskuan dutela ibili dira. Hona hemen gure kamerak harrapatu dituen zenbait momentu.





[PROTAGONISTA]



Andoitz Agirregomezkorta

Aste honetan Andoitz Agirregomezkorta izan da "Date el bote" lehiaketako partehartzaile bat. ETB2an ikusi ahal izan dugu egunero, Carlos Sobera aurkezlearen galderak erantzuten, eta oso fin aritu da gainera. Andoitzek esan digunez, esperientzia polita izan da: "duela bi urte bidali nuen lehiaketan parte hartzeko gutuna eta aurten deitu didate. Jende berria eza-gutu dut, eta primerako esperientzia izan da". Bere asmoa "botea" irabaztea zen, baina gutxiagorekin konformatu behar izan du: "azkenengo egunean irabazi genuen diru apur bat, 400 euro inguru ekarri ditut etxera".

[NOTIZIA]

16.462.306 euroko aurrekontua izango du Udalak 2006. urtean

EAJ, EA eta PSE-EEren aldeko botoekin eta PPren kontrako botoarekin, urte honetako aurrekontua 16.462.306 eurokoa izango dela erabaki zuten Udal Plenoan. Aurrekontu honetatik %27,03a inbertsioetarako erabiliko da. Inbertsioen atalean Ubitarte-Buru eta San Roke auzoa lotuko dituen pasabidea izango da ekin-tza garrantzitsuen 560.000 euroekin. Bestalde, 1.274.308 euro San Lazaro Egoitzara bideratuko dira eta 843.908 euro Udal Kirol Patronatuarentzat izango dira.

Gaztedia eta Ongizate Sailak

Gaztedia eta Gizarte Ongizate Sailak iagoera nabarmena izan dute. Gaztedia 68.000 eurotik 281.892 eurora pasatu da aurten, izan ere, Euskara eta Kultura Saile-



tako dirua ere, bertatik kudeatuko da. Apusturik garrantzitsuenak gaztelekua eta ludoteka izango dira. Gizarte Ongizate Sailak, bestalde, 282.859 euroko aurrekontua izango du. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean hirugarren adinekoentzako zerbitzuak hobetzea izango da helburu nagusia.

[ZENBAKIA]

31

2005. urtean 31 bikote ezkondu ziren Elgoibarran. Horietatik 18 ezkontza zibilak izan ziren eta 13 eliza ezkontzak edo kanonikoak. Gaur egungo gazteen artean, beraz, nahiko berdinduta daude ezkontza zibilak eta kanonikoak, baina gutxiagatik bada ere, zibilek irabazi zuten iaz.

asteko [ARGAZKIA]



Gure herrian aparkatzeko dagoen arazoak ez dauka konponbide erraza, baina Urasandi auzoko bizilagun batzuk, badirudi arazoari aurre egin nahi dietela. Beraien etxe azpiko lokala erosi eta garajeak egiten hasi dira. Makina bat arazo eta buruhauste gainditu behar izan dituzte, baina badirudi, azkenean garajeak izango dituztela. 25 autorentzako lekua egongo da, beraz, garajeetako obrak bukatzen direnean, ez da Urasandin autoa gaizki aparkatzeko aitzakiarik egongo. Udaltzainek ere lan gutxiago izango dute.

Ingeniaritza Eskolak eta CESI erakundeak elkarlan hitzarmena berritu dute



IMHko Ingeniaritza Eskolak eta Frantziako CESI Erakundeak elkarlanerako duten hitzarmena berritu zuten joan zen otsailaren 21ean. André-Georg Clep CESI-ren Ingeniaritza Eskolako zuzendariak eta Joxean Egañak IMHko zuzendari kudeatzaileek hitzarmena sinatu ostean, bi erakundeen artean dagoen elkarlanerako esparrua indartu eta zabaltzeko asmoa dutela aipatu zuten. Honela, IMHko Ingeniaritza Eskolaren eta CESIren Pau-ko ikastetxearen artean elkarlaneko proiektuak bul-tzatuko dituzte ingeniaritzako txandakatze sistema gizarteratzeko helburuarekin. Bes-

teak beste, irakasle trukeak, ikasleen egonaldiak, ikerketa-proiektu partekatuak eta antzeko ekimenak burutu nahi dira.

CESI: Ingeniaritza Eskolako tituluen bermea

CESI erakundeak 12 ingeniaritza eskola ditu Frantzian eta erreferentziako erakundea da txandakatze sistemako ingeniaritzan. Halaber, CESI da Frantziako ingeniari tituluak ematen dituen erakundearen (Commission des Titres d'ingénieur) aurrean IMH Ingeniaritza Eskolak ematen dituen tituluak bermatzen dituena.

[MOTZ-MOTZIAN]

1.800 euro banatu ditu Txan-kakua Merkatari Elkarteak

Txan-kakua Merkatari Elkarteak 1.800 euroko saria banatu du Gabonetako zozketan. Elena Barua eta M^o Asun Riañok 500 euroko txekoa jaso dute eta gainontzekoek 100 eurokoa: M^o Tere Agirregomezkorta, Arrate Iriondo, Jesusa Urain, Idoia Oiarzabal, Isabel Ormazabal, Josefa Picon, Ikuska Uriguen eta Josefina Ulazia.



Xabier Zearsolo Bai ala Ez lehiaketako irabazlea

Hilabete honetan Xabier Zearsolo izan da BARRENeKo Bai ala Ez lehiaketako irabazlea. Gabi jatetxean bi lagunentzako afaria irabazi du Xabierrek. Zorionak! Lehiaketan parte hartzeko, astero BARRENeKo Bai ala Ez atalean egiten dugun galderari bai ala ez erantzun behar zaio. Erantzunak SMS bidez, 7505 zenbakira bidali behar dira. Zenbat eta erantzun gehiago bialdi, saria irabazteko aukera gehiago dago. Datorren hilabetean Debako Kresala Talasoterapia hotelean bi lagunentzako zirkuitoa zozketatuko dugu.



Igor Anguloren heriotzaren kontrako kontzentrazioa



Joan zen astelehenean Cuencako kartzelan hilda agertu zen Igor Angulo ETAko presoaren heriotzaren kontra protestatzeko kontzentrazioa egin zen Plaza Handian. "Dispertsioak erahilda, PP eta PSOE hiltzaileak" lemapean bildu ziren hainbat heritar

Elgoibarko eliza aurrean, euskal presoek kartzeletan jasaten duten egoera salatzen. Igor Angulo botetako lokarri batekin urkatuta aurkitu zuten. Bertsio ofizialak bere buruz beste egin zuela dio, baina oraindik heriotzaren arrazoiak aztertzen ari dira.

Inkesta

Kartzela zigorra jarri nahi da edanda edo gehiegizko abiaduran gidatzeagatik.

Gidariantzako kartzela zigorra neurri egokia iruditzen al zaizu?

HARITZ TXURRUKA

Garraiolaria

30 urte



“Ez, niri gehiegizkoa iruditzen zait, kartzela zigorra azkenena da. Neurri hori hartuz gero, jendea kontu gehiago-rekin ibiliko zela uste dut baina neurri gogorregia da.”

JOSE LUIS HUIDOBRO

Igeltseroa

53 urte



“Ez, pixkat edanda edo azkar gidatzeagatik ezin da inor kartzelara eraman. Istripu larriren bat gertatzen bada, neurri gogorragoak hartzea ondo iruditzen zait”

PEPI PICON

Garbitzailea

48 urte



“Ez. Edanda edo azkarregi gidatzea arriskutsua da eta norbait hiltzen bada zure erruagatik kartzelara joatea ulertzen dut, baina bestela gehiegizkoa da.”

AGURTZANE BIKUÑA

Dendaria

45 urte



“Ez. Isunak gogortzea edo gida baimena kentzea ondo dago, baina kartzela zigorra gehiegizkoa da, istripu larriren bat sortzen ez den bitartean, behintzat.”

[BAI ala EZ?]

Pasa al daiteke hilabetea 804 euroekin?

BAI %54

EZ %46

“Hori baino gutxiago geratzen zait niri kreditoa ordaindu ondoren. Askoz gutxiagorekin pasatzen zuten gure gurasoek! Baina guk askoz kapritxo gehiago ditugu.”

“Bakarrik bizi denak eta maileguari erantzun beharrik ez diotak pasatuko du hilabetea diru horrekin baina lau laguneko familia batek ezingo luke diru horrekin bizi gaur egun.”


Datorren asterako... **Mundu osoko parlamentarien %16a bakarrik dira andrazkoak.**
Politikan emakume gehiago balego, mundua hobeto joango al litzateke?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu **Kresala** hotelean. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!
www.aisiahoteles.com

JAIOTAKOAK



Yera Dobarro Barandela
[Urtarrilak 30]
Juan eta Alicia



Adrian Gonzalez Lucas
[Otsailak 1]
Jesus Mari eta Sara



Unax Fernandez de Jauregi
[Otsailak 5]
Ramon eta Elena



Manex Zabaleta Etxeberria
[Otsailak 14]
Aitor eta Miriam

Haizea Carrascal Lorenzo
[Otsailak 2]
Juan Manuel eta Kristina

Maialen Ruiz Diaz
[Otsailak 15]
Ivan eta Maria

HILDAKOAK

Ines Ezenarro • [95 urte] • Otsailak 1
Carlos Ansola • [83 urte] • Otsailak 20
Manuel Jimenez Rosset • [83 urte] • Otsailak 24
Fernanda Viviens • [85 urte] • Otsailak 26
Delfina Abaitiz • [91 urte] • Otsailak 27

EZKONTZAK

Otsailean ez da ezkontzarik egon Elgoibarren.

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz **barren@elgoibarkoizarra.com** helbide elektronikora.

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01



IRAKASLEARI azterketa

LHko irakaslea

RAKEL PUJANA



- 1 **Txikitan zer izan nahi zenuen?**
Lau urterekin musika ikasten hasi nintzen, abeslaria izan nahi nuen.
- 2 **Zer behar da irakasle ona izateko?**
Umeekin hartu eman ona izaten jakitea.
- 3 **Ikasle garaian jaso zenuen zigorrik txarrena?**
Formala nintzen, ez dut zigorrik gogoratzen.
- 4 **Suspenso asko ateratzen al zenituen?**
Ez, lehenengoa Batxilergoan atera nuen, marrazketan. Oso txarra izan naiz beti marrazten.
- 5 **Jartzen al zenuen argazkirik klasifikadorean?**
Bai, mutil guapoen argazkiak mozten nituen aldizkarietatik eta poemak ere idazten nituen. Klasifikadorea dekoratuta edukitzen nuen.
- 6 **Gehien gustatzen ziztaizun ikasgaia?**
Musika, folklorea eta musikaren historia.
- 7 **Eta gorroto zenuena?**
Marrazketa, beti tratatzen zitzaidan ikasgai hau.
- 8 **Irakasle ez bazina?**
Abeslari bakarlaria izatea nahiko nuke, baina oso zaila da. Hobby bezala daukat eta ahal dudanean kantaldi batzuk eskaintzen ditut.

NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



Mª JESUS IZAGIRRE *ama*



NORA SANTIAGO *alaba*

GALDERAK

- | | | |
|--|---|--|
| 1. Gustuko al dituzu inauteriak? | 1. Bai, izugarri gustatzen zaizkit. | 1. Bai, aurtan bakeroz mozarrotu naiz. |
| 2. Gustukuen duzun jatekoa? | 2. Gazta ezik, beste guztia jaten dut. | 2. Ama bezala, dena, gazta izan ezik. |
| 3. Reala ala Athletic? | 3. Reala, aurtan asko sofritu behar dugu. | 3. Reala, azkenaldian gaizki dabil. |
| 4. Oheratu aurretik egiten duzun azkena? | 4. Irakurri, izugarri gustatzen zait. | 4. Aldizkari bat irakurtzen dut. |
| 5. Zein da asteko egunik onena? | 5. Larunbata, erlojurik gabe ibiltzeko. | 5. Asteazkena, erdian dagoelako. |
| 6. Ikusi duzun azken pelikula? | 6. Harry Potter umeekin. | 6. Narnia ikusi nuen zineman. |
| 7. Izaten al duzu amets gaiztorik? | 7. Ez, lasai egiten dut lo. | 7. Txikitan bai, baina orain ez. |
| 8. Uda ala negua? | 8. Uda, hotzarekin gaizki pasatzen dut. | 8. Uda, oporrak ditugulako. |

TXIKI inkesta

**Zein bizi da hobeto,
gizona ala emakumea?**

Ainhoa Lauzirika
11 urte

Gizonezkoak. Emakumea
beti umeak zaintzen eta
etxeko lanak egiten
dagoelako.



Lide Baz
11 urte

Lehen mutilak hobeto bizi
ziren, baina orain biak
berdinak dira eta biak
bizi dira ondo.



Aitor Ezenarro
11 urte

Gizonezkoak bizi dira
hobeto, ez dute umerik
eduki behar eta ez zaie
hilerokoa etortzen.



Iker Ezenarro
11 urte

Nire ustez biok bizi gara
ondo, denok eskubide
berdinak ditugulako.



LEHIAKETA

**Zer dago faltan, soberan
edo aldatuta?**



Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefonoa:

SARIA

Elhuyar-ek eskainitako

"GIPUZKOA ZURE ESKU"

mahai jokoa + CD-ROMa



AURREKOA:



Irabazlea: **Nerea Irusta**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARREnera ekarri edo
posta elektronikoz bidali:

barren@elgoibarkoizarra.com



GAZTIA NAIZ

lotsa GA BE

Eneritz Diez 16 urte

Zertaz ez zinake sekula mozorrotuko inauterietan?
Aznarretaz, edo maskara zatar batekin aurpegia estaliz.

Noiz esan zenion gezurra azkeneko amari?
Ez dut gogoan, komeni zaidanean esaten dizkiot.

Entzun duzun gezurrik handiena?
Euskal Herrian ez dela ligatzen

Sinisten al duzu gizona ilargira iritsi zela?
Ez, amerikarren asmakizun bat da.

Zerk lotsatzen zaitu?
Gustatzen zaidan mutilarengana joan eta esateak.

Gustatuko al litzaizuke famatua izatea?
Ez, nagoen moduan ondo bizi naiz.

Zein zine izarrekin joango zinateke pote batzuk hartzera?
Unax Ugalderekin.

Boteila erdi beteta ala erdi hustuta ikusten duzu?
Erdi hustuta, gehienetan.

Ezagutuko al duzu bakea Euskal Herrian?
Esperantza badaukat, baina luze joko duela uste dut.

Seduzitu ala seduzitu zaitzaten nahiago duzu?
Nahiago dut seduzi nazaten.

Ezkondu ala elkarrekin bizi?
Elkarrekin bizi. Ezkontzeak ez du elkarbizitza hobetuko. Papel bat besterik ez da.

Langabeziak, terrorismoak ala etxebizitzaren prezioak kezkatzen zaitu gehiago?
Etorkizun batean zerbait ikasi eta ikasitakoan lan bat edukitzea gustatuko litzaidake.

Hemiko alkatea bazina egingo zenukeen lehen gauza?
Gazteok elkartzeko lokal gehiago edo gaztelokal bat ireki. Domeka atsaldetan ez dugu non sarturik tabernetan ez bada.

Gaur bertan testamendua egin behar izanez gero, zer eta nori lagako zenioke?
Euskal Herriarekiko daukaten maitasuna lagako nieke ondorengoei.

Sekula maitemindu al zara irakasle batetaz?
Ez.

Eta gertatuko balitz?
Ez dut uste gertatuko denik. Ez dago kandidatorik.

Bidaiatzeko toki bat?
Australia.

BARREN

jakiteko...

EUSKARAZKO FILM LABURREN ZIRKUITOA

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioaren Kultura Sailak euskarazko Film Laburren Zirkuituaren 3. edizioa antolatu du. Guztira, sei zuzendariren metraje laburreko bost film emango dira, Hego Euskal Herriko hogei herritan, martxoaren 2tik apirilaren 12ra bitartean. Euskarazko Film Laburren Zirkuituan, bost film labur proiektatuko dira, hogei herritako Euskara Elkarrekin zabaldua. Guztira, ordu bat eta laurdeneko emanaldia izango da. Aurreko edizioetan, Eusko Jaurritzaren "Kimuak" egitasmoan parte hartu duten lanen artean aukeratu dira Zirkuitu honetan zabalduko filmak. Aurten, ordea, ez da euskaraz egindako lanik aipatutako egitasmoan aurkeztu eta horrek 1998tik 2000ra bitarteko lanak berreskuratzea eraman gaitu. Hala ere, Film Laburren Zirkuituan orain arte eskaini ez ditugun filmak aukeratu ditugu aurten, 2005ekoak izan ez arren.

Honakoak dira martxoaren 2tik apirilaren 12ra bitartean Film Laburren Zirkuituak

zabalduko dituen bost lanak: Asier Altunak eta Telmo Esnalek zuzendutako Txotx (15'), Beatriz de la Vegaren Sarabe (15'), Bego Vicarioren Haragia (13'), Inaz Fernandez Hauspo soinua (16') eta, azkenik, Asier Altuna eta Telmo Esnalen 40 ezetz (16') dira proiektatuko diren iraupen laburreko aurtengo filmak.



ARGAZKILARITZA DIGITALEKO TAILERRA



Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarte-eratzeko Departamentuak antolatuta, argazkilaritza digitaleko tailerra izango da. Baldintzak: Irabazi asmorik gabeko erakundeetako gazteak, boluntarioak, arduradunak eta zuzendariak. Iraupena: bi egunetan, martxoaren 8an eta 9an 19:30etatik 21:30etara Donostiako CRAJ-Gaztegunen. Izena emateko epea: otsailaren 20tik martxoaren 3ra. Informazioa: 900 110111 / 943 472617

gazte informazioa
Kultur etxean. Bigarren solairuan
Tel.: 943 74 14 61

Lan dosierrak, bekak, lehiaketak... guzti honen inguruko informazioa
Gazte informazioko panelean aurki dezakezu!

AURREMATRIKULAZIO KANPAINA

1187 ikaslek eman dute izena DBHra arteko mailetan

Bukatu da aurtengo aurrematrikulazio kanpaina eta 1187 ikaslek eman dute izena DBHra arteko mailetan. Iazko ikasturtean 1177 ikasle zeuden maila hauetan, beraz, azken urteotan bezalaxe, aurtengoan ere goranzko joera mantendu da eta 10 ikasle gehiago izango dira datorren ikasturtean DBHra arteko mailetan. Pilar Ikastetxea izan da beharakada jasan duen bakarra. Aurtengo kursoan 158 ikasle ditu Pilarrek, eta datorren ikasturterako 140 espero ditu. Elgoibar Ikastola mantendu egin da, gutxi gora behera: 539 ikasle ditu DBHra arteko mailetan eta kurso berrirako 541 espero ditu. Gorakada handiena Herri Eskola eta BH Institutuak izan dute. 474 ikasle izatetik 506 izatera pasatuko da. Dena den, hauek aurrematrikulazio kanpainako datuak dira, eta irailean aldaketak egon daitezke.

	Elgoibar Ikastola	Herri Eskola/Institutua	Pilar Ikastetxea
HAUR HEZKUNTZA			
2 urte	29	44	-
3 urte	37	35	-
4 urte	57	36	-
5 urte	47	35	7
1. HEZKUNTZA			
1. maila	49	45	5
2. maila	27	49	2
3. maila	44	38	11
4. maila	47	22	8
5. maila	29	31	17
6. maila	35	27	13
2. HEZKUNTZA			
DBH 1	28	36	17
DBH 2	36	26	20
DBH 3	35	42	22
DBH 4	41	40	18
GUZTIRA	541	506	140

[IKAS KONTUAK]

Italiar ikasleak Elgoibarren

Hiru aste pasatuko dituzte gure artean Italiatik etorritako zazpi ikasleek. Gure herria eta inguruneak ezagutzeaz gain, bakoitzak bere ikasketen alorreko lan praktikak egingo ditu hemen. Luca izeneko diseinatzaileak Elgoibarko Izarra Kultur Elkartean egingo ditu lan praktikak bi astetan. BARRENen izan ditugu bisitan, eta gure astekariaren berri eman genien.



Gazteen eskubideen aldeko manifestazioa

“Gazteen eskubideen zapaltzaileek gorriak ikusiko dituzue” lemapean, gazteen eskubideen aldeko manifestazioa egin zuten Elgoibar BH Institutuko ikasleek joan zen otsailaren 23an. Euskal Herri mailan borroka eguna deituta zegoen eta ekitaldi desberdinak burutu ziren gazteei ukatzen zaizkien eskubide-

ak salatzeke. Ikastetxeetan greba egin zuten goizeko 10:00etatik aurrera. Bailara mailan bestalde, Eibarren egin zen manifestazioa eguerdiko 12:30ean eta arratsaldeko 19:00etan kalejira izan zen. Besteak beste, etxebizitza eskubidea eta lan baldintza duinak aldarrikatu zituzten.



ANTZERKIA

Bikote ezkonduen arteko komeriak Ambigu taldearen eskutik

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna (martxoak 8) ospatzeko ekinzen barruan, antzezlan berezia ekarri du Udaleko Kultura Sailak Haizea Emakume Taldearen laguntzarekin. Ambigú Antzerki Taldeak "Busco novio formal... que marido ya tuve" antzezlan aurkeztuko du Herriko Antzokiko oholtza gainean, datorren martxoaren 10ean, barixakuan.

Emakumeek ia beti etxean daukatenaz nazkatuta bukatzen ei dutela defendatzen du Isabel Azpirotzek idatzitako antzezlanak. Hala ere, gutxitan ausartzen omen dira emakumeak etxeko miseriak ozenki adieraztera. Bada, "Busco novio formal..." okasio bakan horietako batean oinarritzen da. Protagonistak (Isabel Azpirotz) bere ezkontzaren hastapenak, bilakera eta erlazioa pixkanaka nola itzaltzen



joan den zabalduko du lau haizetara. Baita, senargai berriaren bila hasi duen bidearen zergatiak ere. Txantxa eta txiste artean eguneroko bizimoduan ohikoak di-

ren egoera komiko eta aldrebesenak antzeztuko dituzte. Saioa 22:15ean hasiko da. Sarrerak aurrez eros daitezke Kultur Etxean, goizez, 8,5 eurotan.

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna gogoan



Haizeakoak iaz artista elgoibartarrekin antolatu zuten erakusketan.

Martxoaren 8a, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna dela-eta, Haizea Emakume Taldeak hainbat ekintza antolatuko ditu. Hasteko, martxoaren 7an, 8an eta 9an herri guztiari zuzendutako hitzaldiak izango dira Kultur Etxean (19:00). "Plazerra, euforia eta zoriontasuna", "Errespetua" eta "Norbera maitatzea" izango dira hitzaldiotako izenburu eta gaiak. Martxoaren 11n, datorren zapatuan, afari herrikoia anto-

latu dute Sigma jatetxean. Maite Frank aktore eta ipuinkontalariak alaituko du afalostea. Martxoaren 17an, barixakuan, zine-forum saioa izango da Kultur Etxean (22:00). Bestalde, Haizeak eskaintzen dituen Kubako dantza eta Sevillana ikastaroan parte hartzeko 943 70 07 91 telefonoan lor dezakezue informazio gehiago, eta yoga ikastaroan parte hartu nahi izanez gero, 943 74 33 42 telefonora dei eginda.

"CNC tomuaeren programazioa" ikastaroa euskaraz

Estrainekoz euskaraz emango den langileentzako "CNC tomuaeren programazioa" (Fagor) ikastaroan izena emateko azken egunak gainean dira. Enpresa mundua euskaratzeko zubi lanetan, IMHk langileentzako bi formazio ekintza ireki prestatu ditu Goazen ekimenaren barruan: lehenengo ikastaroa martxoaren 6tik, apirilaren 6ra arte izango da, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara eta 40 orduko iraupena izango du. Interesa duten enpresa edo langileek www.imh.es webgunean sartu edo telefonoz (943744132) dei egin dezakete.

Helduentzako onarizko buztin ikastaroa

Lurki Zeramika Tailerrak helduentzako onarizko buztin ikastaroa eskainiko du martxoaren 6tik apirilaren 6ra bitartean. Informazio gehiago nahi izanez gero, edo izena emateko: 677 466 344 (Jose).

MIKEL LEON ARETO FUTBOLEKO JOKALARIA

«Kenci taldearen gainbehera Nazional mailatik jaitsi zenean hasi zen»



Kenci Areto futbol taldeko jokalaria eta Lanbroa taldeko entrenatzaile-etako bat da Mikel Leon. Xakea ere gogoko du, baina bi afizioen arteko antzekotasun bakarra eduki beharreko pazientzia dela aitortu digu, batez ere, entrenatzaile lanetan.

🦋 Talde nagusia ez doa batere ondo.

Inoiz baino okerrago. Joan zen zapatuan hil ala biziko partida irabazi genien azkenurrekoei. Orain beraiek dira azkenak eta gu azken aurrenak. 16 talde gaude eta azkenengo hirurek galtzen dute maila. Asteburu honetan jokatzen dugu gure aurretik doan taldearen aurka. Sei puntu ateratzen dizkigute. Denboraldi-aurrean mailaz igotzeko intentziora izan arren, 20 partidatik 3 irabazi ostean, salbaziora lortuta nahikoa dugu.

🦋 Azken urteetan areto futbolaren arrakastetara ohituta geunden.

Halaxe da. Laupabost urtean jarraian mailaz igotzea lortu ostean, Nazional mailan jokatzerara iritsi ginen; futboleko 2. B mailaren parekoa. Duela 2 urte maila galdu genuenean, ordea, gainbehera hasi zen. Partida asko galtzean talde barruko giroa gaiztotzen da: pikeak, haserreak... 7-8 jokalarik alde egin zuten. Gauzak horrela, iaz ozta-ozta eutsi genion Nazional B mailari, eta aurten antzera.

🦋 Talde gaztea al zarete?

Gaztea, eta, batez ere, esperientzia gutxikoa. Batezbeste 22 urteko jokalariek dauzkagu eta esperientzia gradu bat denez, denbora beharko dugu. Abantailarik ere badu, maila galduta ere gazteek taldean jarraituko dute.

🦋 Zein da probintziarik indartsuena?

Bizkaia. Ohorezko mailan talde bat ere badute, GSI Bilbao. Gipuzkoan

duela gutxi hasi da areto futbola indartzen. Realak datorren urterako taldea atera nahi du. Jokalari gazte elgoibar-tarrentzat pizgarri bat izan daiteke.

🦋 Jokalaria izateaz gain entrenatzaile ere bazara.

Bai, jubenilekin urte batzuk egin ostean, entrenatzaile ikasketak ateratzen ari naiz Donostian. Han konturatu naiz genituen gabeziak. Datorren astean Javier Lozano, Espainiako hautatzailea etorriko zaigu hitzaldi bat ematera.

🦋 Harrobia zaintzen al duzue?

Bai. Datorren urtean kadete mailako taldea atera nahi dugu. Kirol bera direlakoan, futboletik iristen da jende asko areto futbolera, kilotoxko batzuk hartuta dituztenean, alegia. Oker daude. Adin batetik aurrera zaila da areto futboleko oinarriak funtsezkoenak bereganatzea; baloia zapaltzen jakitea, mugikortasuna, e.a. Futbola baino exijenteagoa iruditzen zait. Fisikoki ondo dauden 4 jokalarik hobeto jokatuko dute teknikoki onak, baina iraupen gutxiago duten lauk baino. Horrez gain, bizkortasuna funtsezkoa da.

🦋 Bitxikeriarik?

Gipuzkoako selekzioarekin joan nintzen estraineko aldiaren entrenatzaile nitaz ahaztu eta Bergaran botata laga ninduten. Bi hilabete igandero entrenatzen eta jokatu gabe etxera itzultzeko. Gainera, lagun guztiei esana nien selekzioarekin jokatzen nuela. Ederra estrena.

«Aurten maila mantentzea lorpen handia izango litzateke»

EUSKAL LIGA PILOTA TXAPELKETA

Euskal Ligako finala jokatzera garesti jarri zaio Iker Txurruka pilotariari

Eskuz banakako Euskal Ligako finalean egon nahi badu, dauzkanak eta ez dauzkanak eman beharko ditu Iker Txurruka pilotariari, eta hori gutxi balitz zortea alde izan. Izan ere, Euskal Ligako finalurrekoetako joaneko partida 22 eta 8 galdu ostean, asteburu honetan Donezteben jokatu den itzulerako partidaren zortzi tanto baino gutxiagoan laga beharko du Erreka pilota taldeko Iturriotz pilotari nafarra. Azkoitiko Anaitasunan ari den pilotari elgoibartarrak aurkari gogorra topatu zuen Azkoitian jokatu den partidaren eta orain arteko ibilbide aparta zapuztu zion Doneztebekoak. Gipuzkoako Txapeldun atera ostean, Euskal Ligako ligaxkan partida guztiak irabazi ostean iritsi zen finalurrekoetara Txurruka, era eta jatorri guztietako pilotariak bidean laga ondoren: Narbarte naparra, Resano errioxarra eta Ortuellako ordezkariari bakoitzari bina partida irabazita. Orain, bere bizitzako partida jokatu beharko du final handian sartzeko.



Lorea Santiago Azpeitiko Herri lasterketan garaile



Mintxeta Atletismo Taldeak denboraldi hasieran egindako lanaren fruituak jasotzen jarraitzen du. Otsaileko azken asteburuan Azpeitin jokatu zen herri lasterketan parte hartu zuten hainbat antxintxikarik, eta batez ere, neskak nabarmendu ziren. Benjamin mailan Lorea Santiago izan zen irabazlea eta Ainhoa Etxeberria 4. postuan sailkatu zen. Alebin mailan 3. postua eskuratu zuen Nora Santiagok eta 5. postua Garazi Osorok. Azkenik, Maria Hernandez 6. postuan sailkatu zen infantil mailan.

Aralarrera mendi irteera martxoaren 12an

Morkaikoren hurrengo mendi irteera Zaldibi eta Lizarrusti arteko mendi irteera izango da, martxoaren 12an. Besteak beste, Goieriko artzainek ehundaka urtetan beren artaldeekin negu bukaeran egin

izan duten bide berbera egingo dute, Aralar inguruan egin daitekeen mendi buelta ederrenetakoa, alegia. Goizeko 8:00etan aterako da autobusa Plaza Handitik. Informazio gehiagorako www.morkaiko.net.

[EMAITZAK]

ESKUBALOIA

Univ. Deusto **32** - Tecnifuelle **32** (Senior mut.)
Tolosa **21** - Pneumax **20** (Jub. mut.)
Aloña **26** - Umobitza **26** (Kad. mut.)
La Salle Legazpi **24** - Tecnomeca **23** (Kad. nes.)

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa

Aurrera-Saiaz **7** - Lagunak (Ula./In.) **22** (2. nag.)
Lagunak (Atxo./Portu) **16** - Olalde **22** (1. jub.)
Lagunak (Liz./Ariz.) **22** - Bergara **13** (2. jub.)
Lagunak (Arib./Sal.) **22** - Hemani **13** (2. kad.)

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Zapata, 4

10:30 Elgoibar - Beasain (Inf. A)

16:30 Elgoibar - Legazpiko Gazteak (1. erreg.)

Domakia, 5

10:30 Elgoibar - Hemani (Inf. B)

12:30 Elgoibar - Zalla (Jub.)

ESKUBALOIA Kiroldegian

Zapata, 4

13:00 Pagoaga - Arrate (Kad. nes.)

17:30 Tecnifuelle - Zarautz (Senior. mut.)

19:00 Pneumax - Aitzuri (Jub. mut.)

Domakia, 5

09:00 Olasa - Pulpo (Inf. nes.)

10:00 Cometel - Leizaran (Jub. nes.)

11:30 Umobitza - Arrate (Kad. mut.)

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa

Barixakua, 3

22:30 Lagunak - Eibar (2. nag.)

[IDARRAGA SARIAK]

IDARRAGA KAFAK 9. SARIA

HAUNDIko jokalaria erregularrena **05/06**

Jokalaria	Puntuak
1. David Morais	56
2. Navarrete	42
3. Arruti	30
4. Iribar	29
5. Guinea	27
6. Alex Del Rio	22
7. Loren	22
8. Orue	18
9. Etxabe	14
10. Iker Martinez	11
11. Kerman	9
12. Igartua	8
13. Torre	8
14. Jon Ruiz	5
15. Tarragual	4

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

† Etxea salgai erdialdean. Bizitzera sartzeko moduan.

☎ 943 74 37 16

† Atikoa salgai Deban. Logela bat, sukaldea jantzita, su baja, igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.

☎ 670 251 263

† Etxea salgai Santa Ana kalean. 2 logela, sukalde berriua, komuna eta egongela. Prezio interesgarria. Garaje itxia aukeran.

☎ 686 22 44 38

† Arregitorren pisua salgai, garaje eta ganbararekin. 93,49m². Hall, egongela, bi komun, 3 logela eta sukaldea. Guztiz berriua.

☎ 943 743915/678287847

† Etxea salgai Errosario kalean. Guztiz berriua. 168.200 euro (28 milioi pezeta).

☎ 943 748448/636571111

† Erdialdean dagoen pisua salgai. 3 logela, 2 komun oso, egongela-jangela handia, sukaldea. Bizitzera sartzeko moduan.

☎ 656 72 44 01

☎ 630 43 11 71

† Etxea salgai Santa Klara 26an. Altzariekin, bizitzera sartzeko moduan. ☎ 610 68 41 64

ALOKAIRUA

† Pisua hartuko nuke alokairuan.

☎ 656 61 28 34

† Estreinatua gabeko etxea alokatzen da San Roke kalean. 2 logela, berogailua, 2 komun, sukaldea. Altzariekin. ☎ 660 042 159

† Pisua osatzeko pertsona bat behar da. ☎ 610 45 85 52

[AUTOAK]

† Citroen Xsara 2.0 HDI VTR coupé autoa salgai. 2000. urtekoa. 3 ate, ondo zaindua, ITV pasatu berri. Extrak. 6.600 euro. ☎ 659 554 564

[GARAJE eta LOKALAK]

† Mendaron garaje itxia alokatzen da. Garagartzan. 40m².

☎ 620 036 738

† Garaje itxia salgai Urasandin, Anayak poligonoan. ☎ 943 74 09 80/636 20 51 89

† Garaje marraduna alokatzen da Pedro Muguruza 11n. Merke.

☎ 943 53 16 48

† Sigmako poligonoan dagoen 600m²ko pabilioia salgai.

☎ 619409273/902103287

† Leku Ederren garaje itxia salgai.

2. solairuan. ☎ 635 71 79 67

† Garajea salgai San Roken (12-14, Kiroldegi parean).

☎ 629 31 42 42

[BESTELAKOAK]

† York Shire arrazako txakurkumeak salgai. ☎ 647 81 62 56

† Bi armairu handi salgai. Bi hila-bete. Txuriak. Haritz egurra.

☎ 645707700/943740226

API
317

GABILONDO

AGENTZIA INMOBILIARIOA

ETXEBIZITZA SALGAI ERDIALDEAN

113m². 4 logela. Saloia. Sukaldea eta jangela.
2 komun. Igogailua. Kalefazioa. Guztiz berriua.

Errosario, 21 behea -Tel: 943 74 44 67

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Neska umeak edo adinekoak zaindu, garbiketa lanak egin edo sukaldari laguntzaile izateko prest. ☎ 600 28 27 93
- Mutila harategian lan egiteko prest. ☎ 615 00 83 48
- Gizona pintore edo peoi lanak egiteko prest. ☎ 656 61 28 34
- Emakumea pertsona nagusiak zaindu edo interna moduan lan egiteko prest. Informeak ditut eta bertakoa naiz. ☎ 620 674 034
- Neska gaztea lanerako prest: garbiketa, umeak edo nagusiak zaindu... ☎ 686 23 47 86
- Kamarero euskalduna barran lan egiteko prest. ☎ 620 04 94 20
- Emakumea gabez eta goizez nagusiak zaintzeko prest. ☎ 943 17 28 96
- 37 urteko mutila enkofratzaile edo 2. mailako igeltsero moduan lan egiteko prest. ☎ 638 361 395 (Josu)

- Neska etxeko lanak egiteko prest. ☎ 647 15 59 08
- Neska garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 639 88 20 04

ESKAINZA

- Ikastolen Elkarteak aisialdiko begirale eta zuzendariak behar ditu. ☎ 944354340 (Amaia)
- Asteburu eta jai egunetan gasolindegian lan egiteko pertsona bat behar da. ☎ 943 74 02 41
- Asteburuetarako kamarero euskalduna behar da. ☎ 670 654 921
- Goratu CNC 8050 makinarako langilea behar da. ☎ 639 52 48 50
- Debagoienarako txarkutera behar da. Baldintza onak. ☎ 666 28 57 75
- Esperientziadun kamareroa behar da astean zehar arratsaldez eta asteburuetan lan egiteko. ☎ 679 75 88 66



- Bergarako enpresak **turismo informaziorako teknikaria** behar du. Erref. 162006002267
- Arrasateko enpresak **lurri-promotorea** behar du. Erref. 162006002265
- Mutrikuko enpresak **metalen egiaztatzailea** behar du. Erref. 162006001345
- Arrasateko enpresak **pintorea** behar du. Erref. 162006002646
- Zestoako enpresak **aisialdirako begiralea** behar du. Erref. 162006002207
- Arrasateko enpresak **tomurako langilea** behar du. Erref. 162006002606
- Oñatiko enpresak **muntatzailea** behar du. Erref. 162006000675
- Gipuzkoako enpresak **erizaina** behar du. Erref. 162006002456
- Azpeitiko enpresak **soldadorea** behar du. Erref. 162006001985

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentzura deitu: IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

ABISUAK

- Argazki kamera digitala galdu nuen otsailaren 25ean Plaza Handian. Argazkiak oso garrantzitsuak dira. Bidali mesedez mgguede@yahoo.es helbidera. ☎ 625 70 90 17
- Argazki kamera digitala galdu nuen inauterietako zapatuan. Pentax markakoa da. ☎ 628 58 45 35
- Urtarrilaren 10ean Madalako errotondan istripua izan nuen, eguerdian. Lekukoen bila nabil. ☎ 680319002/943744062
- Karakatera bidean gizezko baten hortzak aurkitu ditut. ☎ 943 74 27 27

[ZORIONAK]



† San Jose lore txikixekin jaio ziñan, gaur familia guztiari kerizpia ematen diozun pagondo ederra zera. Muxu handi bat.




† Zorionak gure etxeko mutil haundixari familixako guztion partez. Segi holako maitakorra izaten. Zazpi muxu zuretzat.



† Zorionak **Andoni** martxoaren 6an 10 urte egingo dituzulako. Etxeko eta Pilar Ikastetxeko LH4koen partez.



† Zorionak **Ane** 12 urte egin dituzulako. Segi bide beretik, senideei poza ematen.



† Zorionak **Mikel** zure 4. urtebetetzean. Denok maite zaitugu.



† Zorionak **Jone** zure 2. urtebetetzean. Bi muxu handi ikastolako laguntxo guztien partez.



† Zorionak **Alazne** gaur, 13 urte egin dituzulako. Familiako eta bereziki, Nerearen partez.



† Zorionak **Andrea** martxoaren 5ean 8 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta familixako guztien partez. Ondo pasa!



† Zorionak **Jone** atzo zure lehenengo urtea egin zenuelako. Gurasoen eta Sararen partez.



† Zorionak **Asier** hilaren 27an 3 urte egin zenituelako. Familiako eta bereziki, arreba Naia eta lehen-gusuen partez.



† Zorionak **Nerea** eta **Natalia** hilaren 2an eta 6an zuen eguna delako. Zorionak baita ere izeba **Arantzari**. Guztion partez.



† Zorionak **Nora** eta **June** 6 eta 2 urte egin dituzuelako. Familiako guztien partez.



† Zorionak **Mireia**, **Nerea** eta **Itsaso** martxoaren 5ean, 13an eta 16an 15 urte egingo dituzuelako. Lagunen partez, oso ondo pasa, majisimak!



† Zorionak **Sergio Alonso**, asteazkenean 10 urte egin zenituelako. Pilar Ikastetxeko LH4. mailakoen partez.



† Haunditzen, haunditzen... Aurten 114 ditugu ospatzeko. Zorionak!!!



Zerbitzuak



[OKINDEGIA]



5 igandea IBARRENA



[FARMAZIAK]

- GUARDIA** 24 ORDUZ
- 3 Etxeberria (Santa Ana)
 - 4 Fernandez
(* Goizez Etxeberria Errosario)
 - 5 Fernandez
 - 6 Yudego
 - 7 Zabaleta
 - 8 Etxeberria (Errosario)
 - 9 Ibañez
 - 10 Bidasolo

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK

IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84



[TELEFONOAK]

OSASUNA

Anbulatorioa 943 03 26 10
Larrialdiak 943 46 11 11
Planning-a 943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak 943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia) 943 46 46 22
Gurutze Gorria 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00
Odol Emaileak 943 74 39 36

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 74 43 66
Kultura Zerbitzua 943 74 21 58
Hirigintza 943 74 43 84
Epaitegia 943 74 16 30
Hazien 943 74 44 14
Mendaroko Udala 943 03 32 82
Ongizate zerbitzua 943 74 10 08
Udaletxea 943 74 10 50
Udaltzaingoa 943 74 13 94
Debemen 943 74 40 67

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 74 04 42
PESA (Eibar) 902 10 12 10
Taxi geltokia 943 74 08 98
Bizkaibus 902 222 265

BESTELAKOAK

BARREN astekarria 943 74 41 12
Elgoibarko Izarra 943 74 16 26
Kiroldegia 943 74 44 15
Konsumo Bulegoa 943 74 30 88
Liburutegia 943 74 35 25
Musika Eskola 943 74 21 45
Mintxeta 943 74 43 15
Parrokia 943 74 08 42
Postetxea 943 74 15 47
Gazte Informazioa 943 74 14 61
KZ gunea 943 74 88 28

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza 943 74 02 96
Zaharren Biltokia 943 74 05 26
Eguneko Zentroa 943 74 45 65

IKASTETXEA

Haur Eskola 943 74 21 41
HHI (EPA) 943 74 08 80
Herri Eskola 943 74 08 79
I.M.H. 943 74 41 32
Instituta • Arreiturre 943 74 80 19
•Ezenarro (Meka) 943 74 80 19
Ikastola 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea 943 74 13 31



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak:
7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40,
14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00,
18:40, 19:05, 20:00, 20:40

Larunbatak:
7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00,
18:40, 20:00

Igandeak eta jaiegunak:
9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00,
20:40

Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak:
6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30,
13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30,
19:30, 20:45.

Larunbatak:
8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30,
19:30, 20:45

Igandeak eta jaiegunak:
12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak:
6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45...
ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuak eta jaiegunak:
7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak:
6:55ean hasita, ordi erdira. Azkena
21:55.

Asteburu eta jaiegunak:
7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 943 74 04 42

ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[3 BARIXAKUA]

19:30 INAZIO BEREZIARTUA
MUSIKA ESKOLAKO TALDE
INSTRUMENTALEN KONTZERTUA
Musika Eskolako auditorioan

[7 MARTITZENA]

19:00 HITZALDIA

Gaia: "Plazerra, euforia eta
zoriontasuna"

Kultur Etxean

Martxoak 8, Emakume Langilearen

Nazioarteko Eguna dela-eta

Antolatzailea: Haizea Emakume

Taldea

SINOPSISIAK

«Manuale d'amore»



[8 EGUAZTENA]

19:00 HITZALDIA

Gaia: "Errespetua"
Kultur Etxean
Martxoak 8, Emakume Langilearen
Nazioarteko Eguna dela-eta
Antolatzailea: Haizea Emakume
Taldea

20:00 KONTZENTRAZIOA

"Sexismoari Stop"
King Kong-en
Antolatzailea: Gazte Asanblada

[9 EGUENA]

19:00 HITZALDIA

Gaia: "Norbera maitatzea"
Kultur Etxean
Martxoak 8, Emakume Langilearen
Nazioarteko Eguna dela-eta
Antolatzailea: Haizea Emakume
Taldea

[10 BARIXAKUA]

19:00 APOLINAR ALDALURREN MARGO ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Kultur Etxeko erakusketa gelan
Martxoaren 26ra arte

22:15 ANTZERKIA

Antzezlanak: "Busco novio formal...
que marido ya tuve"
Taldea: Ambigú antzerki taldea
Herriko Antzokian
Antolatzailea: Udaleko Kultura
saila, Haizea Emakume Taldearen
laguntzarekin

[11 ZAPATUA]

12:30 MANIFESTAZIOA

"Euskal herritarren erabakia
errespetatu"
Hasiera Plaza Handian
Martxoaren 9an Arnaldo Otegi
hitzaldia eskainiko du Eibarko
Portalean.
"Orain Herri Orain Bakea"

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Manuale d'amore»
3, barixakua: 22:15
4, zapatua: 19:30-22:15
5, domekia: 19:30-22:15
6, astelehena: 21:30
"Esta abuela es un peligro"
5, domekia: 16:30
«Bordadoras» (Z.K.)
9, eguena: 21:30

EIBAR, UNZAGA

«Dicen por ahí»
3, barixakua: 19:30-22:15
4, zapatua: 17:00-19:30-22:15
5, domekia: 17:00-19:30-22:15
6, astelehena: 19:30-22:15
7, martitzena: 19:30-22:15
8, eguaztana: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Los tres entierros»
3, barixakua: 19:30-22:15
4, zapatua: 17:00-19:30-22:15
5, domekia: 17:00-19:30-22:15
6, astelehena: 19:30-22:15
7, martitzena: 19:30-22:15
8, eguaztana: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen
emanaldien aldaketan erantzukizunik.

«Bordadoras» (Zine Kluba)

Zuzendaria: Giovanni Veronesi.

Antzezleak: Carlo Verdone, Silvio Muccino, Luciana Littizzetto.

Bikote askok bizitzan pasatzen dituzten aro edo garai ezberdinetaz dihardu filma italiarrak. Amodioaren lau aroak azaltzen dira bertan: maitasunak atea jotzen dueneko, krisia, traizioa eta banantzea. Lau bikote ezberdin erabili ditu Veronesi zuzendariak aro bakoitzeko gora beherak azaltzeko. Istorio normalak dira batzuk, apartekoak besteak, erromantikoak, ironikoak, dibertigarriak... bizitzan denak baitu kabida.



Zuzendaria: Éléonore Faucher.

Antzezleak: Lola Naymark, Ariane Ascaride, Thomas Laroppe

Filma frantziar honetan Clairek 5 hilabeteko haurdunaldia duela jabetzen denean, ezkutuan bada ere, haurra izatea erabakiko du. Bien bitartean, Melikian andrearen etxean aurkituko du babesia. Goi-mailako jantzigintzarako lan egiten duen brodatzailea da eta Claireren tripa handitu ahala hasiko da bien arteko adiskidetasun sakona. Claire kanpoko mundu zitalaz babestuz bera ere aberasten dela ohartuko da Melikian andrea.

Atzera hegira



1905. urteko maiatzaren 5ean Irukurutzetan egindako erromeria ikus daiteke argazki zahar honetan. Erromeria Santikutz Egunaren hurrengo domekan egiten zen. Santikutz Eguna domekan egokitzen bazen, berriz, igande horretan eta hurrengoan egiten zuten. San Lorentzoko auzotar batek laga digun argazkian ikus daitekeenez, "Mikeleteak" ere bertara joaten ziren beharrezkoa izanez gero, ordena jartzeko (behean ezker aldean ageri dira, armaturik). Erromeria oso eza-guna izan zen garai batean. Dirudienez 1800eko hamarkadan hasi omen zen ospatzen. Juan Luis Bikuña kazetari bergararraren "Iriaun, frantsesen urrea eta Elosu" liburuan agertzen denez, "Osintxuko Lesarri-zoro baserriko gizona hasi zen Irukurutzetara joaten. Ondoren, Osintxu eta Elosuko, Bergarako eta Azkoitiko Atxostamendi eta Urrategi auzoko goi aldeko gazteek bat egin zuten ohiturarekin, eta tarteka Elgoibarko San Lorentzo auzoko gazteak ere joaten ziren. Herri bakoitzetik gurutze bat eramaten zen tontorrera; Bergara, Elgoibar eta Azkoitia hortxe elkartzen baitira". Gailurra baino pixka bat beherago, pago batzuren azpian, egiten zuten erromeria trikiti doinuekin. Beste garai batzuk.

ANTZERKIA

BUSCO NOVIO FORMAL... QUE MARIDO YA TUVE

de ISABEL AZPIROTZ



**Martxoak 10,
ostirala
22:15ean
Herriko Antzokian**

ISABEL AZPIROTZ

EDUARDO SOLER

JAVIER ESTEBAN

Dirigido: F.C. JAVIER DE GARA



Ambigú



**Martxoak 12,
igandea**

16:30ean

**Herriko
Antzokian**



KULTURA SAREA



FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA





SAREA



AUTOMATION ORIA[®]






MAKINA-ERREMINTA



ZEATZ

- Makina-Erremintaren birmoldaketa eta egokitzea.
- Proiektuak eta armairu elektrikoek fabrikazioa.
- Plater zatitzaileen eta ZEATZ mahaien fabrikazioa.
- MAKINARIAN EROSKETA ETA SALMENTA.



Itziar Poligono Industrialia - C2 pabilioia Tel.: 943 199 131 - Faxa: 943 199 190
20829 ITZIAR - DEBA (GIPUZKOA)
E-posta: comercial@autonationoria.com

www.autonationoria.com